

Merkatuaren segmentazioa

Gure enpresa edo produktua, bezero jakin bati zuzenduta dago. Ondoren aipatuko ditugun ezaugarriak biltzen dituzten bezeroei zuzenduta egongo da:

Generoaren arabera , zerbitzua berdina izango da bai emakumezkoentzako eta bai gizonezkoentzako.

Adinari dagokionez, bizikletak erabiltzeko, gutxienez 14 urte eduki behar izango dira. Bizikleta neurri txikiak ez ditugu eskainiko eta.

Enpresa **Zarautzen** egongo da kokatuta, beraz gure bezero potentziala zarautzitarra izango da baina bizikletarekin posible izango da, ondoko herrietara joatea, adibidez: Oriora eta Getarira. Gainera, udara partean beste herrialde batzuetako jendeak erabiltzeko aukera izango du.

Egoera **sozioekonomikoari** dagokionez, maila ertaina duten pertsonentzat bideratuta dago.

